

Usurbilgo Udala

## 2018KO UZTAILAREN 24AN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

#### Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka  
Xuban Zubiria Elexpe  
Jone Urdampilleta Urdampilleta  
Iñaki Ugarte Agirre  
Irene Gartzia Palacios  
Jose Mari Iribar Zapirain  
Josune Urkola Larrarte  
Mirari Azurmendi Sorazu  
Andoni Atxega San Sebastian  
Carlos Perez Fraisoli  
Fermin Orue-Echevarria Iturri

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel

**Kontu-hartzailea:** Karmele Lizaso Ubera

**Ezin-etorria adierazi du:** Miren Josune Estella Arranz

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2018ko uztailaren 24an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

### **1.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2018KO EKAINAREN 18TIK UZTAILAREN 6RA (2018/0689-2018/0792).**

Alkatetzak 2018ko ekainaren 18tik uztailaren 6ra bitartean (2018/0689–2018/0792) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.



Usurbilgo Udala

## **2.- 2018/0851 DEKRETUAREN BERRI EMATEA.**

Batzarkideei, 2018/0851 dekretuaren berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

## **3.- HAAS-TAKO A-78 (ZAPATEGI) EREMUKO HIRIGINTZA EZAUGARRIEN ALDAKETA PUNTUALA SUSTATZEKO MICHELIN ESPAÑA Y PORTUGAL, S.A., GUREAK LANEAN S.A., ELKARLANEAN FUNDAZIOA ETA USURBILGO UDALAREN ARTEAN IZENPETU BEHARREKO HIRIGINTZA HITZARMENA HASIERAKO IZAERAZ ONTZAT EMATEA.**

Alkateak azalpenak eman ditu.

Hirigintza hitzarmena hasieraz onartzea proposatzen dela dio eta honen helburua da Michelingo eremuan bi ordenazio area sortzea, bata, gaur egun Michelinek erabiltzen duena eta, bigarrena, Michelingo jabetzan bai baina erabiltzen ez den area (Zapategi).

Udal honen legealdi honetako helburu nagusien artean jasota dagoela dio eremu hori birgaitzea. Gureak eta Elkar udal honekin harremanetan jarri zirenean, eremu horretan beren jarduera ekonomikoa finkatzeko aukera ona zela ikusi zutela adierazi du. Gainera, bi enpresa horien izaera oso kontuan hartzekoa dela ikusi zuten, bai arlo sozialean bai kultur eta hizkuntzaren arloan egiten duten lanarengatik.

Hau horrela, buru-belarri jarri zirela lanean aipatu du. Egindako lanaren ondorioz, proposamen horri forma ematea eta gaur hitzarmen baten bidez jasotzea lortu dutela esan du.

Azpimarratu du egindako lan horretan, interes publiko eta pribatuaren arteko oreka bat lortzen saiatu direla eta baita ikuskera publikoa eta enpresen beharrak ondo koordinatu eta jasotzen ere.

Hitzarmen honen oinarrian lan xehatu eta zehatz bat dagoela aipatu du, horri forma bat eman zaiola eta ordenazio proposamen bat ere mahai gainean dagoela gaineratu du.

Udalaren aldetik hasieratik defendatu izan dutela dio area horrek zer nolako eduki eta planteamenduak eduki beharko lituzkeen. Batetik, ikusten zuten ezin zuela izan ohiko poligono itxi bat, baizik eta tramu urbanoarekin ondo integratzen zen espazio bat sortu beharra zegoela eta horrek halabeharrez eskatzen zuela hor inguruan zebiltzan pertsonen aukera eman behar zitzaizela inguruarekin ere harreman natural eta eroso bat izateko. Gainera espazio publiko batzuk sortu beharra zegoela dio inguru pribatuekin batera eta bien arteko konexioak, konexio natural bat izan behar zuela. Halaber, erabilera nahasketari ere garrantzia eman behar zaiola azaldu du, irisgarritasun irizpideak kontutan hartu behar direla, inklusibitatearen printzipioak aplikatu behar direla, zer esanik ez gainera eragileetako bat Gureak izanda. Genero ikuspegia ere aipatu du, ez baitzuten nahi hor inguru ilun edo toki ezkutatu edo arriskutsu bat sortzea, inguru lasai/atsegin bat sortu nahi zutela esan du. Halaber, inguru eta baliabide



Usurbilgo Udala

naturalekin konexio ona edukiko lukeen ingurua sortu nahiko luketela eta aipatu du hor erreka bat pasatzen dela eta horren inguruan espazio berde bat sortzea beharrezkoa ikusten dutela. Era berean, kontutan hartu beharrezkoa dela dio hor inguruan pasatzen dela Oria ibaia eta ibaiarekiko harremana zaindu beharra zegoela.

Alkateak esan du aipatutakoak izan direla udalaren irizpideak. Hala ere, enpresek beraien beharrak dituztela noski eta jarduera ekonomikoa datorren neurrian enpresa bakoitzak bere baldintzak eta beharrak ekarri dituela eta horrela bakoitzak beretik jarrita lortu dela esan du halako proposamen bat lantzea eta adostea. Proposamen hori adostu ondoren, izapidetze urbanistikoa datorrela esan du, hain zuzen ere, gaurko plenoan hastera doazen izapidetzea.

Izapidetze horren lehenengo urratsa Arau Subsidiarioen aldaketa bideratuko duen hitzarmen urbanistikoa onartzea dela zehaztu du. Hitzarmen horretan batez ere bi area sortzen direla dio, horietako bat jadanik martxan dagoela dio eta egiten dena da kontsolidatu. Hau da, Michelin enpresak interesa zeukala dio beraien area horretan kontsolidazio bat egiteko, eraikigarritasunari eta erabilerari begiratuta, horrela gaurkotuta geratuz. Bestalde, Gureak eta Elkarri aukera ematen zaiela esan du baldintza egokiak sortzeko beraien betebeharrei eta eskaerei tokia egiteko.

Arauen aldaketa maila xehakatuan egingo litzatekeela zehaztu du eta aurreikusten dela dio tramitazio urbanistikoan gerora ez dela inongo plan berezirik beharko.


Behin hitzarmen hau sinatuta, sustatzaileek bi hilabeteko epea izango dutela dio Arau Subsidiarioen Aldaketaren proposamena Udalera ekartzeko. Udalaren betebeharra funtsean tramiteak bideratzea eta tramitazio urbanistikoari bide ematea izango dela zehaztu du. Arau Subsidiarioak behin betikoz onartzen direnean, sustatzaileek berriz ere bi hilabeteko epea izango dutela dio PAU (Hirigintza Jardueraren Proiektua) aurkezteko.

Proiektu honen dimentsioari eta garrantziari buruz hainbat puntu azpimarratu ditu. Usurbilera 950 lanpostu inguru ekartzeaz hitz egiten ari direla esan du, baita ere inguru degradatu bat modu duinean eraberritzeaz, hirigintza moderno eta jasangarriaren ikuspegitik eta errazkerietan erori gabe. Tentu handiz eta mimo handiz landutakoa izan dela azpimarratu du eta udaleko teknikariek esfortzu handia egin dutela, momentua aprobetxatu du hirigintza sailak egindako lana eskertzeko.

Proiektu berezi bati buruz hitz egiten ari direla uste du eta proiektu horren izaerak eta dimentsioak nabarmen herri mailako neurria gainditzen duela aipatu du.

Iñigo Oiartzabal aipatu du, Gureak-en ordezkari izan dena hainbat bilera eta lan-saiotan. Ja fase honetara iritsita zirela, duela gutxi zoritxarrez ustekabean zendu dela gogoratu du eta bere dolumina adierazi du.

Amaitzeko eta bozkatzera pasa aurretik, irizpenaren puntuak azaldu ditu.



Usurbilgo Udala

Batzarkideek, Hirigintza batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio testuak:

“Esp. Zenbakia: HZ.02/2018-0388

GUREAK LANEAN S.A. eta ELKARLANEAN FUNDAZIOAk, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremuan MICHELIN ESPAÑA Y PORTUGAL, S.A. enpresak libre utzitako gunea (43.881,09 m<sup>2</sup>) erosteko asmoa dute beren jarduerak bertan ezartzeko.



Gauzak horrela, GUREAK LANEAN S.A. eta ELKARLANEAN FUNDAZIOA Udalarekin harremanetan jarri dira Hiri Antolatzeko Plan Orokorreko Aurrerakinean zehaztutako oinarrizko irizpide eta helburuak kontutan izanik, gunea horren antolamendu berria adosteko. Antolamendu berria adosteko irizpide nagusiak honako hauek izan dira:

1. Hiri-egitura fisikoari lotutako irizpideak: hiri-lotura, lurzorua optimizatzea, kalitazteko espazio publikoa sortzea
2. Erabilera nahasketari loturako irizpideak: erabilera nahasketa, hiri-banaketaren antolamendua.
3. Bidodibertsitateari eta geografia-balioak mantentzeari lotutako irizpideak: inguruko lurraldearekin lotuko diren gunea berde berriak sortzea, Oria ibaia antolamendu berrian barneratzea.
4. Mugikortasun jasangarri bat lortzeko irizpideak: garraio jasangarriaren modu desberdinak nabarmentzea.
5. Egonkortasun sozialari lotutako irizpideak: menpeko pertsonen eta desgaituen autonomia erraztea, inklusibitatearen ikuspegitik; zaintzarekin lotutako ardurak erraztea; genero ikuspegia txertatzea.



Usurbilgo Udala

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremua bi gunetan banatzea hobetsi da. Alde batetik, MICHELIN ESPAÑA Y PORTUGAL, S.A. enpresak okupatutako gunea: **A-78 (TE) MITXELIN**; eta bestetik, GUREAK LANEAN S.A. eta ELKARLANEAN FUNDAZIOAK okupatuko duten gune libre: **A-110 (TE) ZAPATEGI**. Horretarako ordea, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (TE) ZAPATEGI eremuaren Aldaketa Puntuala sustatu behar da, eta egitasmoa bideratzeko aurretik dagokion Hirigintza Hitzarmena izenpetzea hobetsi da.

Izandako elkarrizketen ondorioz, lau alderdiek, interes publiko urbanistikoa hobetzeko asmoz, ondoko HIRIGINTZA HITZARMENA adostu dute:

---

**CONVENIO URBANISTICO PARA EL AREA A-78 (TE) ZAPATEGI DE  
LAS NORMAS SUBSIDIARIAS DE PLANEAMIENTO DEL  
MUNICIPIO DE USURBIL**

---

**R E U N I D O S**

**DE UNA PARTE**

D. Xabier Arregi Iparragirre, Alcalde-Presidente del Ilmo. Ayuntamiento de Usurbil.

**DE LA OTRA**


D. Bertrand Touraton, mayor de edad, de nacionalidad francesa, con domicilio a estos efectos en Avda. de los Encuartes, 19, Tres Cantos 28760, Madrid con NIE número X1575929S.

D. Joxemaria Sors Bagües, mayor de edad, domiciliado a efectos de este contrato en Portuetxe Kalea, 88 200018 DONOSTIA, y provisto de DNI nº 72.418.726-P

D. Iñaki Alkorta Andonegi mayor de edad, domiciliado a los efectos de este contrato en la calle Illarra Bidea 4, 20018 DONOSTIA, y provisto de D.N.I. nº 15.877.609-L.

**I N T E R V I E N E N**

D. Xabier Agirre Iparragirre, en nombre y representación del Ilmo. Ayuntamiento de Usurbil, como Alcalde-Presidente del mismo, facultado expresamente para la suscripción del presente convenio mediante acuerdo plenario de XX de XXXXXXX de 2018, y asistido por la Sra. Secretaria de la Corporación Doña Garazi Etxeberria San Miguel. Se aporta como **ANEXO Nº1**.



Usurbilgo Udala

D. Bertrand Touraton, en nombre y representación de la mercantil MICHELIN ESPAÑA Y PORTUGAL, S.A. CIF A-20003570 con domicilio social en Avda. de los Encuartes, 19, Tres Cantos 28760, Madrid constituida por tiempo indefinido, mediante escritura otorgada ante el Notario de San Sebastián, Don Luis Barrueta, el 3 de septiembre de 1932, número 1086 de protocolo. INSCRITA en el Registro Mercantil de Madrid, al tomo 3.398, folio 193, Sección 8, hoja M-57540, inscripción 148 (adaptación). Tiene NIF A/20003570. Actúa en calidad de Apoderado de la misma en virtud de escritura de poder otorgada ante el Notario de Madrid, D. Carlos RUIZ-RIVAS HERNANDO, de fecha 9 de mayo de 2014, bajo el nº 1066 de su Protocolo.

D. Joxemari Sors Bagües, en nombre y representación, actuando en su calidad de Presidente de la Fundación FUNDACION ELKARLANEAN, domiciliada en Portuetxe Kalea, 88 20018 DONOSTIA y cuyo NIF es AG/20574232.

D. Iñaki Alkorta Andonegi en nombre y representación, actuando en su calidad de Presidente del Consejo de Administración de la mercantil GUREAK LANEAN, S.A., domiciliada en la calle Illarra Bidea 3, 20018 DONOSTIA y cuyo NIF es A/20044590


Reconociéndose todos ellos mutua y recíproca capacidad para el otorgamiento del presente Convenio, y de conformidad con lo establecido en la Disposición Adicional 7ª de la Ley 2/2006 de 30 de junio de Suelo y urbanismo, se procede a suscribir el presente CONVENIO Urbanístico por lo que las partes a tal fin

## E X P O N E N

I.- Que por Orden Foral de fecha 22 de julio de 2013, se acordó proceder a la publicación de la normativa urbanística contenida en el *“Texto Refundido de la Revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Usurbil”* redactado en febrero de 2013 y aprobado por el pleno municipal en sesión celebrada el 28 de mayo de 2013. (BOG nº172 de fecha 10 de septiembre de 2013).

II.- Que es objeto del presente convenio, el ámbito urbanístico denominado A-78 (TE) ZAPATEGI, clasificado como suelo urbano y calificado de industrial, donde se incluyen los terrenos de la mercantil Michelin España y Portugal, S.A. El Texto Refundido de las Normas Subsidiarias posibilita la ampliación de la industria y plantea la mejora del acceso desde Txikierdi, asignando las siguientes determinaciones urbanísticas:

- a) Superficie del Área: 114.062 m<sup>2</sup>.
- b) Superficie ocupada por la edificación (ampliación incluida): 34.600 m<sup>2</sup>.



Usurbilgo Udala

c) Nº de aparcamientos en superficie: 343 UD.

d) Sistema de actuación: concertación.

**III.-** Que en la actualidad, en dicha Área de Ordenación, existen dos realidades urbanísticas diferenciadas: la primera, por los suelos ocupados por la fábrica de neumáticos Michelin donde desarrolla su actividad en la actualidad, y la segunda, por la parcela liberada de edificación, donde se plantea su transformación urbanística.

**IV.-** Que la FUNDACION ELKARLANEAN y GUREAK LANEAN, S.A. son dos entidades sin ánimo de lucro con una clara proyección social y cultural; de difusión de la cultura vasca la primera, y de reinserción del colectivo de discapacitados la segunda, que han manifestado su voluntad -ante el Ayuntamiento de Usurbil- de ubicar sus actividades en la parcela incluida en la A-78 (TE) Zapategi que se encuentra libre de edificación.

**V.-** Que la mercantil MICHELIN ESPAÑA Y PORTUGAL, S.A., manifiesta su interés y necesidad de que se determine en el planeamiento municipal -con carácter general -la edificabilidad urbanística del ámbito y -en particular- se refleje la edificabilidad actualmente existente.

**VI.-** Que con la finalidad de determinar las superficies reales del área de ordenación, y fijar la edificabilidad urbanística actualmente materializada, el Ayuntamiento de Usurbil adjudicó a MUGARRI S.L.- que procediese al levantamiento topográfico del Área A-78 (TE) ZAPATEGI, resultando los siguientes datos:

e) Superficie total del área: 114.757,86 m<sup>2</sup>.

f) Superficie del "Área 1" (ámbito ocupado por Michelin): 70.096,30 m<sup>2</sup>.

g) Superficie del "Área 2"(parcela libre de edificación): 44.661,47 m<sup>2</sup>.

h) Edificabilidad urbanística del Área 1: 46.592,66 m<sup>2</sup>(t).

La superficie de la parcela libre de edificación se definirá con exactitud una vez realizado el deslinde.

**VII.-** Que la FUNDACIÓN ELKARLANEAN Y GUREAK LANEAN S.A, han manifestado tanto ante el Ayuntamiento de Usurbil como ante MICHELIN ESPAÑA Y PORTUGAL, S.A, su voluntad de adquirir la parcela libre de edificación incluida en el área A-78 (TE) ZAPATEGI). A tales efectos, con fecha 25 de noviembre de 2016 se ha suscrito entre MICHELIN ESPAÑA PORTUGAL, S.A. por una parte, y FUNDACION ELKARLANEAN y GUREAK LANEAN, S.A. (*anteriormente denominada como TALLERES PROTEGIDOS GUREAK, S.A.*) por la otra, un documento que bajo el título de ACUERDO PARA LA FORMALIZACION DE CONTRATO DE COMPRAVENTA, regula el




Usurbilgo Udala

procedimiento a seguir para el perfeccionamiento de la transmisión de las fincas. Se aporta como **ANEXO nº2**.

**VIII.-** Que en la actualidad, el ayuntamiento de Usurbil está en proceso de revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento con la redacción del Plan General de Ordenación Urbana que sustituirá al planeamiento vigente, en cuyo avance se han definidos unos objetivos de ordenación que deben de materializarse en la nueva intervención urbanística, siendo destacables los siguientes:

- a) Crear una Conexión Urbana buscando el enlace entre tejidos antiguos y nuevos, para lograr una buena conexión peatonal y ciclable y sobre todo visual con el río, salvando de forma integrada el importante desnivel que actualmente existe con la zona de Urbil. De la misma manera, se deberá conectar el tráfico motorizado del ámbito con las infraestructuras viarias existentes alrededor de una forma fluida y a la vez separada de la conexión peatonal y ciclable principal.
- b) Optimizar el suelo de forma que el nuevo ámbito a urbanizar se cree con densidad suficiente favoreciendo construcciones más verticales, ocupando así menos suelo. Por lo tanto, se limitarán las tipologías edificatorias creadoras de dispersión urbana y ocupación masiva del territorio.
- c) Creación de espacio público de calidad concibiéndose dicho espacio de conexión con el centro urbano de Lasarte-Oria liberándolo de su función imperante al servicio del coche, para convertirlo en espacio de convivencia, del ocio, del ejercicio, del intercambio y de otros múltiples usos. La red de espacios y equipamientos públicos se entenderá como lugar urbano para el ciudadano por lo que se deberá considerar la importancia del confort y del aumento de la calidad urbana, mediante el buen diseño urbano. Esta red de espacios libres deberá organizarse principalmente alrededor de la red peatonal y ciclable y tendrá que poner en valor la visual hacia el río Oria.
- d) Combinar diferentes usos de actividades económicas (como fábricas, oficinas, talleres, etc.), así como de comercio (excluyéndose usos comerciales de grandes superficies), aprovechando la capacidad de atracción de los equipamientos y grandes contenedores de actividad como activadores sociales, culturales, económicos, etc.
- e) Se intentarán evitar las crecientes disfunciones que genera la carga y descarga en el espacio público. Para ello se deberá aprovechar el desnivel existente entre la zona de Urbil y el sur del ámbito para diferenciar los almacenes, zonas de carga y descarga y plataformas logísticas en la cota inferior y facilitar la conexión peatonal y ciclable sobre su cubierta transitable.
- f) Crear nuevas zonas verdes que conecten con el territorio circundante generando corredores verdes que asocien los





Usurbilgo Udala

espacios de naturaleza con los urbanos, favoreciendo su uso por la mayor parte de la ciudadanía. Por lo tanto, se deberá crear una red de espacios públicos y zonas verdes dentro del ámbito que conecte con las zonas verdes cercanas y el entorno del río Oria, de forma que su calidad ambiental se preserve y mejore las condiciones de habitabilidad y calidad ambiental del nuevo entorno urbano.


- g) Priorizar las redes peatonales y de bicicletas y tener en cuenta el transporte colectivo y su intermodalidad integrando todas estas redes con el vehículo motorizado de forma que se faciliten e impulsen los modos de transporte más sostenibles.
- h) Introducir la perspectiva de género en la ordenación y diseñar el espacio público desde la perspectiva de un urbanismo inclusivo que no sólo piense en el trabajo productivo, sino también en el reproductivo, incluyendo aquellos sectores de la ciudadanía más vulnerables, facilitando las responsabilidades de cuidado, crianza y atención a la dependencia.

**X.-** Que en cumplimiento de lo establecido en los artículos 4 y 5 de la Ley 2/2006, 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, únicamente el interés público legitima la ordenación de la utilización del suelo por el planeamiento urbanístico. A los efectos, la potestad de ordenación urbanística se ejercerá observando las siguientes reglas:

- a) Información suficiente sobre la realidad existente y sobre una valoración razonable de la previsible evolución de ésta.
- b) Ponderación razonada de todos los intereses y las necesidades, públicos y privados, de los fines de la función pública urbanística y de los principios que conforme a la ley 2/2006 deben informarla.
- c) Expresión en opciones y decisiones suficientemente motivadas y adecuadamente proporcionadas respecto a los objetivos perseguidos.

**X.-** Que debido a que el trámite de revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, con la redacción del Plan General de Ordenación Urbana, se dilatará en el tiempo, se ha valorado por parte de la corporación municipal, impulsar el procedimiento de modificación puntual del A-78 (TE) ZAPATEGI respetando los criterios definidos en el Avance del P.G.O.U.

**XI.-** Que en aplicación de lo establecido en la Legislación urbanística (*mencionados artículos 4 y 5 de la Ley 2/2006*), analizada la situación urbanística actual de los suelos incluidos en el A-78 (TE) ZAPATEGI y la necesidad de regenerar un entorno degradado, se ponderan razonadamente los intereses y las necesidades públicos y privados que justifican la modificación puntual de las Normas Subsidiarias de planeamiento para el A-78 (TE) Zapategi, manifestando lo siguiente:



Usurbilgo Udala

- a) Reordenar el A-78 (TE) ZAPATEGI, diferenciando el suelo afectado por la actual actividad industrial de Michelin, del suelo libre de edificación.
  - b) Creación de dos áreas de ordenación: una de ellas que integre el suelo ocupado y posibilite la consolidación y cuantificación de la edificabilidad urbanística actual de MICHELIN ESPAÑA Y PORTUGAL, S.A. y la segunda área, permita reordenar el suelo libre de edificación, posibilitando la implantación de las actividades que llevan a cabo la FUNDACION ELKARLANEAN y GUREAK LANEAN, S.A.
  - c) La reordenación del área libre de edificación permitirá el cumplimiento de los objetivos de ordenación enumerados en el expositivo VIII del presente documento.
  - d) Además de los criterios de ordenación, la normativa que se recoja en el expediente de Modificación regulará las condiciones de la urbanización y edificación para que posibilite lo siguiente:
    - El desarrollo de una urbanización de bajo impacto reduciendo el sellado y la impermeabilización del suelo.
    - El empleo de métodos bioclimáticos pasivos utilizando energías renovables y fomentando la aplicación de criterios de eficiencia energética de forma que se contribuya a la independencia de las fuentes fósiles y nucleares.
    - Aplicar patrones de urbanismo sostenibles para que la edificación pueda basarse en directrices bioclimáticas: orientación de los edificios, posibilidad de incorporar producción local de energía solar o geotérmica, integración de elementos naturales que contribuyen a atemperar las condiciones climáticas del entorno, etc. Todas estas cuestiones que se deben definir desde el planeamiento y que permitirán unas demandas reducidas de energía y una optimización de las fuentes renovables en la edificación posterior. Se trata de acercar los nuevos desarrollos urbanos a la autosuficiencia energética, a través de la planificación y la proyección urbanística y arquitectónica.
1. Vincular el desarrollo urbano al ciclo del agua en su expresión local (captación de agua de lluvia, reutilización de agua usada, etc.): Se propone aprovechar la cubierta de los edificios y el subsuelo como captadores de agua para determinados usos directos.
  2. Control local de la gestión de recursos y residuos en las nuevas áreas a urbanizar, la planificación y el proyecto urbanístico deben prever e incorporar los mecanismos e infraestructuras necesarias en la edificación o en el



Usurbilgo Udala

subsuelo que permitan una gestión de residuos basado en las 3R (reducir, reutilizar y reciclar).

3. Facilitar la autonomía de dependientes y discapacitados: El planteamiento de igualdad de oportunidades asumido como eje de las políticas sociales actuales, incluye el derecho a la ciudad de aquellos sectores de la ciudadanía caracterizados por su capacidad o movilidad disminuida.
  4. Facilitar las responsabilidades de cuidado, crianza y atención a la dependencia; introducir la perspectiva de género en la planificación: a la hora de diseñar el espacio público se deberá hacer desde la perspectiva de un urbanismo inclusivo que no sólo piense en el trabajo productivo, sino también en el reproductivo.
- a) Regenerar un ámbito degradado con la implantación de actividades de marcado carácter social y cultural que posibilite la generación de aproximadamente 950 nuevos puestos de trabajo directos.

En definitiva, lo expuesto afecta a determinaciones de ordenación urbanística estructural, y en cumplimiento de lo establecido en el artículo 53 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, deberán de reflejarse en el expediente de Modificación de las Normas Subsidiarias de Usurbil.

**XII.-** Que considerando los antecedentes expuestos, las partes acuerdan fijar -a través del presente documento- las determinaciones urbanísticas que deberá contener el expediente de modificación puntual del Área A-78 (TE) Zapategi de las Normas Subsidiarias vigentes, el alcance de las obligaciones urbanísticas que van a corresponder a los particulares y la forma de su cumplimiento que permitan alcanzar los objetivos municipales en la regeneración y reordenación del Área.


De conformidad con lo expuesto, se suscribe el presente Convenio Urbanístico de acuerdo con las siguientes

## D I S P O S I C I O N E S

### **PRIMERA.- Objeto**

Es objeto del presente convenio urbanístico promover una modificación puntual del Área A-78 (TE) ZAPATEGI de las vigentes Normas Subsidiarias de Planeamiento, creándose dos áreas de ordenación diferenciadas y con la finalidad de definir su ordenación y ejecución, respetando los criterios definidos en el documento de avance del Plan General de Ordenación urbana que está en redacción.

Las determinaciones urbanísticas básicas y de ordenación, a las que dicho expediente se deberá ajustar son las que se contienen en



Usurbilgo Udala

la ficha urbanística y en las hojas gráficas correspondientes, que acompañan a este convenio como **ANEXO nº3** .

El expediente de modificación, en el área ocupada por la actividad de la mercantil, se limitará a recoger la ordenación existente. a consolidar los usos actuales y a definir los parámetros de edificabilidad. Cualquier modificación que afecte a la actividad, edificabilidad o uso de la parcela de Michelin, conllevará la correspondiente tramitación de los instrumentos de planeamiento y gestión que sean jurídicamente pertinentes.

En el área de nueva creación donde se ubicarán GUREAK y ELKAR, la ordenación urbanística del área se estudiará con la pormenorización suficiente como para que su ejecución no requiera la formulación posterior de un Plan Especial.

Adicionalmente, a través del presente convenio quedarán establecidos los deberes urbanísticos específicos que corresponden a los propietarios privados en contraprestación a los derechos que en el mismo se les reconoce.

#### **SEGUNDA.- Respecto a la formulación y tramitación de los instrumentos de planeamiento urbanístico**

Al objeto de dar cobertura jurídica a los acuerdos alcanzados, MICHELIN ESPAÑA Y PORTUGAL, S.A., FUNDACION ELKARLANEAN y GUREAK LANEAN, S.A. se comprometen a presentar en el Ayuntamiento de Usurbil para su tramitación, en el plazo máximo de DOS MESES desde la firma del presente convenio, la Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del A-78 (TE) ZAPATEGI.

El Ayuntamiento de Usurbil, con el objetivo de materializar el cumplimiento del presente convenio, se compromete a tramitar y aprobar -dentro de sus competencias- el Proyecto de Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del Municipio de Usurbil para el área A-78 ZAPATEGI , que recogerá las determinaciones de ordenación estructural y pormenorizada que se regulan en el presente Convenio.

#### **TERCERA.-Respecto al contenido mínimo que debe contener el expediente de modificación de las Normas Subsidiarias**

El Expediente de Modificación puntual de las Normas Subsidiarias respecto al Área A-78 (TE) ZAPATEGI, contendrá las siguientes determinaciones urbanísticas esenciales:

##### **1º.- Delimitación de dos áreas de Ordenación.**

Con la finalidad de diferenciar la superficie del área donde actualmente desarrolla su actividad MICHELIN ESPAÑA Y PORTUGAL, S.A, de aquella donde se plantea un nuevo asentamiento de actividades económicas (GUREAK-ELKAR), en el expediente de



Usurbilgo Udala

modificación se crearán dos áreas de Ordenación clasificadas como suelo urbano de actividades económicas, con las siguientes superficies:


**A.- El Área A-78** que se denominará **MITXELIN**, cuya superficie se reducirá a 70.096,39 m<sup>2</sup>.

**B.- Área de nueva creación A-110 (ZAPATEGI)**, con una superficie aproximada de 45.561,47 m<sup>2</sup>, ya que se están realizando gestiones para integrar otra parcela, ubicado al oeste del área, entre la calle Geltoki del municipio de Lasarte-Oria y el río Oria, con la finalidad de ordenar adecuadamente los accesos al nuevo área de creación.

Las superficies han sido objeto de la medición topográfica realizada por MUGARRI, S.L., que se adjunta como **ANEXO nº4** a este documento.

**2º.- Definición de la edificabilidad urbanística que corresponde al área A-78 (TE) MITXELIN en el expediente de modificación de Normas Subsidiarias.**

Al área **A-78 (TE) MITXELIN** con su nueva delimitación en el expediente de modificación de las Normas Subsidiarias se le otorgará la siguiente edificabilidad urbanística:




Usurbilgo Udala

	PLANTA SOTANO	PLANTA BAJA	PLANTA BAJA 50%	PLANTA PRIMERA	PLANTA SEGUNDA	PLANTA TERCER A	TOTAL m <sup>2</sup>
EDIF 1		776,04	31,76	839,57	839,57	81,40	2.568,34
EDIF 2		512,27	24,77				537,04
EDIF 3		1.915,83					2.118,68
A				73,75			
B				82,42			
C				46,68			
EDIF 4		479,02		209,95			688,97
EDIF 5		201,15					201,15
EDIF 6		24.397,10					29.603,02
S1	921,13						
S2	1.821,57						
A				75,85			
B				602,66			
C				415,72			
D				56,62			
E				940,93			
F				230,41			
G				141,03			
EDIF 7		1.528,59					1.528,59
EDIF 8		820,00		86,93			906,93
EDIF 9		1.886,38		513,81			2.400,19
EDIF 10		5.991,76					5.991,76
A1		25,99					25,99
A2		6,06					6,06
A3		7,58					7,58
A4		8,36					8,36
<b>TOTAL</b>	<b>2.742,70</b>	<b>38.556,13</b>	<b>56,53</b>	<b>4.316,33</b>	<b>839,57</b>	<b>81,40</b>	<b>46.592,66</b>

**3º.- Definición de las determinaciones urbanísticas del nuevo Área que se crea: Área A-110 (TE) ZAPATEGI.**

Con la finalidad de determinar el contenido de la nueva ficha urbanística que se creará para su tramitación en el expediente de Modificación de las Normas Subsidiarias, se procede a definir las determinaciones urbanísticas esenciales que deberá de recoger, sin perjuicio de los ajustes que se puedan realizar en el documento urbanístico que se tramite:



Usurbilgo Udala

• Superficie aproximada del área:	<b>45.561,47 m<sup>2</sup>.</b>
• Clasificación del Suelo:	<b>Urbano NO consolidado.</b>
• Calificación del Suelo:	<b>Actividades Económicas.</b>
• Ocupación en planta:	<b>24.800 m<sup>2</sup>.</b>
• Superficie edificable en entreplantas:	<b>30%.</b>
• Perfil dependiendo de las parcelas edificables:	
- P1.1 (ELKAR):	<b>PB+ Entreplanta+ dos sótanos</b>
- P.2.1 (GUREAK INDUSTRIAL 1):	<b>PB+P1+ Entreplanta+ dos sótanos</b>
- P.2.2 (GUREAK INDUSTRIAL 2):	<b>PB + Entreplanta+ dos sótanos</b>
- P.2.1 (GUREAK INDUSTRIAL 1):	<b>PB+ Entreplanta+dos sótanos</b>
- P.2.4 (GUREAK EDIFICIO SERVICIOS):	<b>PB+4+dos sótanos</b>
• Edificabilidad urbanística total:	<b>65.080 m<sup>2</sup> (t).</b>
• Superficie privada no edificable:	<b>7.236,47m<sup>2</sup></b>
• Cumplimiento de Estándares	
▪ Sistema Local Zonas Verdes y Espacios Públicos:	<b>7.049,00 m<sup>2</sup></b>
▪ Sistema Local Viario:::	<b>5.330,00 m<sup>2</sup>.</b>
▪ Nº de aparcamientos públicos y privados:	<b>A determinar en el documento urbanístico.</b>
• Sistema Fluvial:	<b>1.146,00 m<sup>2</sup>.</b>
• Altura máxima:	<b>20m al alero sin perjuicio de justificación por necesidades funcionales.</b>
• Parcela mínima:	<b>750 m<sup>2</sup>.</b>
• Vegetación:	<b>380 árboles.</b>



Usurbilgo Udala

**CUARTA.- Contenido de las obligaciones de cesiones urbanísticas y de sufragar las obras de urbanización del área**

MICHELIN ESPAÑA Y PORTUGAL S.A, declara que la totalidad de la edificabilidad urbanística que le corresponde se materializará en el área A-78 (TE) MITXELIN, debido a que carece de suelo en propiedad en el área A-110 (TE) ZAPATEGI.

Por ello, en el área donde se mantiene la actividad de MICHELIN ESPAÑA Y PORTUGAL, S.A. las obligaciones urbanísticas se definirán en el momento en que se proceda a modificar la ordenación, usos y/o edificabilidades de dicho ámbito, con la tramitación de los instrumentos de planeamiento y gestión que se determine de acuerdo con la legislación urbanística vigente en el momento.

En el Área de nueva creación, al tratarse de un suelo urbano NO CONSOLIDADO, en cumplimiento de lo establecido en el artículo 25 de la Ley 2/2006, de 30 de junio de Suelo y Urbanismo y en el Decreto 123/2012 de 3 de julio de estándares urbanísticos que a continuación se relacionan:

1. Cesión de 2.733,69 m<sup>2</sup> de suelo destinado a Sistema Local de Zonas Verdes y Espacios libres (6%). Artículo 6.2.a Decreto 123/2012, de 3 de julio, de estándares urbanísticos.
2. Cesión de Aparcamientos Públicos
3. Vegetación: 380 árboles, 1 árbol por cada 100 m<sup>2</sup>/(t). (Artículo 6.2.c) del Decreto 123/2012.

En el supuesto en que las características de ordenación que se definan en el expediente de modificación de las Normas Subsidiarias, no permitan o dificulte gravemente el exacto cumplimiento de los estándares mínimos legalmente exigidos, la diferencia se deberá de trasladar o compensar económicamente. Artículo 7.1 del Decreto 123/2012, de 3 de julio, de estándares urbanísticos.

4. Cesión del 15% por la participación de la comunidad en las plusvalías generadas por la acción urbanística. En virtud de lo establecido en el artículo 27.5 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de suelo y urbanismo, y debido a que no es posible adjudicar al Ayuntamiento el pleno dominio de una parcela edificable, la cesión se sustituirá por el abono en metálico.

La cantidad a abonar se definirá en el PAU o en el Convenio de Concertación, con carácter previo a que se tramite el instrumento de equidistribución.

5. Costear todas las obras de urbanización del área.





Usurbilgo Udala

6. Cesión gratuita al Ayuntamiento de Usurbil de todo el suelo destinados a viales, parques , jardines etc cuyo destino sea el uso público .

#### **CUARTO.- Obligaciones del Ayuntamiento de Usurbil**

El Ayuntamiento de Usurbil, con el objetivo de materializar el cumplimiento del presente convenio se compromete a :

1. Tramitar y aprobar, dentro de sus competencias, el expediente de modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento referidas a la Área A-78 (TE) ZAPATEGI, que recogerá las determinaciones de ordenación estructural y pormenorizada señaladas en el presente convenio y sus anejos.
2. Tramitar y aprobar -una vez aprobado definitivamente el expediente de modificación- el Programa de Actuación Urbanizadora, el convenio de Concertación, el Proyecto de Reparcelación y el Proyecto de urbanización.
3. Independientemente de las parcelas resultantes del Proyecto de Reparcelación, el Ayuntamiento de Usurbil otorgará las licencias de segregación que se precisen para la transmisión e inscripción en el Registro de la Propiedad, de las parcelas que MICHELIN Y PORTUGAL ESPAÑA, S.A. enajenará a favor de FUNDACION ELKARLANEAN y GUREAK LANEAN, S.A..


#### **QUINTO.- Plazos para la gestión del Área A-110 (TE) ZAPATEGI**

Una vez aprobado definitivamente el expediente de modificación de las Normas Subsidiarias- en cuyo contenido se regularán aspectos de carácter estructural y pormenorizado-, en el plazo de DOS MESES contados desde dicha aprobación, se presentará en el Ayuntamiento de Usurbil el Programa de Actuación Urbanizadora (PAU), en cuyo documento se regularan -entre otros- los siguientes aspectos:

- a) Delimitación de la unidad o unidades de ejecución.
- b) El régimen de ejecución (público o privado) y su sistema de actuación.
- c) Determinación de los plazos para la presentación de la propuesta de equidistribución y del proyecto de urbanización´.
- d) Anteproyecto de urbanización.
- e) Definir el programa temporal de ejecución de las obras de urbanización y en su caso de edificación.

#### **SEXTO.- Legitimación <<INTUITU PERSONAE>> del proceso urbanístico**

Que las partes reconocen la condición <<Intuitu Personae>> de este Convenio Urbanístico. En este sentido, la totalidad de las obligaciones, compromisos y derechos adquiridos mediante el presente Convenio, y su desarrollo a través de los diversos documentos



Usurbilgo Udala

urbanísticos, se considerarán vinculados e inherentes a los suscribientes de esta escrito y circunscritos a la actual área A-78 (TE) ZAPATEGI de las Normas Subsidiarias de Usurbil.

Por ello, en el supuesto de que sea un tercero no participante en este Convenio quien tratara de aplicar las condiciones especiales desarrolladas en este proceso, el Ayuntamiento de Usurbil podrá a su instancia, retrotraerse en aplicación de esta cláusula a la situación urbanística anterior al inicio del presente proceso.

### **SÉPTIMO .- Eficacia**

La eficacia de este convenio y de las previsiones establecidas en el mismo se condicionan, con carácter general, a la aprobación definitiva de la modificación de las Normas Subsidiarias de Usurbil en los términos y parámetros urbanísticos que han sido definidos en las estipulaciones precedentes.

En el supuesto de que, como consecuencia de dicha aprobación, se alterasen las previsiones urbanísticas referidas, quienes lo suscriben renegociarán su contenido con el fin de, ajustándose a las nuevas condiciones, restablecer el equilibrio de las prestaciones recíprocamente asumidas mediante el mismo

En el caso de que como resultado de resoluciones de instancias administrativas supramunicipales, las determinaciones básicas de ordenación estructural y pormenorizada correspondientes al área A-78 (TE) ZAPATEGI, incorporadas al expediente de modificación de las Normas Subsidiarias no llegaran a alcanzar la aprobación definitiva, las partes quedarán liberadas de cualquiera de las obligaciones que tuviesen asumidas en virtud del presente convenio.

### **OCTAVO.-Formalización y jurisdicción**

El presente convenio tiene carácter jurídico-administrativo. Todas las cuestiones litigiosas que surjan del mismo, de su cumplimiento o incumplimiento, modificación o resolución, serán resueltas por el Ayuntamiento de Usurbil, cuyas resoluciones pondrán fin a la vía administrativa y contra las que misma podrá interponerse recurso contencioso-administrativo, en los términos previstos en la legislación reguladora al efecto.

Y en prueba de conformidad de todo lo mencionado, firman las partes el presente convenio por triplicado y a un solo efecto, en Usurbil a XX de XXXXXX de 2018.

Udal idazkariak dagokion txostena egin du eta ez du eragozpenik ikusi Hirigintza Hitzarmenari hasierako onespena emateko. Izapidetzeari dagokionez, honako urrats nagusiak aipatu ditu:



Usurbilgo Udala

- Aurkeztutako hirigintza-hitzarmena eta txosten teknikoak ikusita, udalak baiezkoa edo ezezkoa eman diezaioke hasierako onespenerari. Hirigintza-hitzarmena onartzeko eskumena, apirilaren 2ko 7/1985 legearen 22.2.c) artikulua araberan, plenoari dagokio.
- Hasierako onespenerari buruzko erabakia hartzen denean, hirigintza-hitzarmena bere osotasunean argitaratuko da GAOean, eta 20 eguneko epea irekiko da, gutxienez, jendurrean jartzeko eta alegazioak jasotzeko.
- Alegazioen bat baldin badago, horiek jaso, ikusi eta aztertu ondoren, plenoak behin betiko onspena emango dio hirigintza-hitzarmenari eta Alkatea ahalmenduko du hitzarmena sinatzeko udalaren izenean.
- Hirigintza-hitzarmenaren behin betiko onspenerari buruzko erabakia GAOean argitaratuko da.

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2018ko uztailaren 18an egindako bilkuran, Xabier Arregi, Jone Urdampilleta eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin, eta Mirari Azurmendiren abstentzioarekin, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du :

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremuko hirigintza ezaugarrien Aldaketa Puntuala sustatzeko Michelin España y Portugal, S.A., Gureak Lanean S.A., Elkarlanean Fundazioa eta Usurbilgo Udalaren artean izenpetu beharreko Hirigintza Hitzarmena hasierako izaeraz ontzat ematea.

**BIGARRENA:** Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeko zazpigarren xedapen gehigarriko 8. puntuan ezarritakoa betetze aldera, espedientea jendurrean jartzea 20 egunez, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, interesatuek berau aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.


Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisolli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## 4.- EUSKARALDIA UDAL BARRUAN SUSTATZEKO ERAKUNDE ADIERAZPENA.

Alaitz Aizpuruak adierazpenari buruzko azalpenak eman ditu.



Usurbilgo Udala

Aurtengoa Euskaraldiaren urtea dela aipatu du. Nahiz-eta EH Bilduk aurkeztu duen adierazpena izan zehaztu du udaletxe askotan aurkeztuko dela onartua izan dadin eta Foru Aldundiko Euskara batzordetik bideratutakoa dela.

Jarraian, adierazpena irakurri du.

Izen-ematearen aurkezpen ekitaldia irailaren 19an izango dela jakinarazi du.

Adierazpena onartu ondoren, Euskaraldiko pankartarekin batera argazki bat ateratzeko gonbita luzatu zaiela adierazi du.

“Esp.zk.: KE.16/2018-0193

2018ko uztailaren 16an izandako Kultura, euskara eta gazteria batzordean “Euskaraldia udal barruan sustatzeko erakunde-adierazpena” mozioa aztertu zen. Batzarkideek aho batez (aldeko botoak: Alaitz Aizpurua, Jone Urdanpilleta eta Fermin Orue-Echevarria) onartu zuten eta Udalbatzarrera bideratu zuten, honek bere egin zezan.

Hori horrela, Udalbatzarrak aho batez honako adierazpena onartu du:

### **“EUSKARALDIA UDAL BARRUAN SUSTATZEKO ERAKUNDE-ADIERAZPENA**

Azken neurketek baieztatu dutenez, euskararen ulermena eta ezagutza zabaltzen ari dira Euskal Herriko inguru ezberdinetan. Euskaraz hitz egiteko gai den jende gehiago dago, eta euskara ulertzen dutenak ere gero eta gehiago dira. Bi datu horiek aditzera ematen digutenez, euskarazko harremanak areagotzeko baldintza onak daude.

Horrela bada, euskararen erabilpen maila handiagoa sustatu eta praktika linguistiko berriak bultzatzen dituzten testuinguruak sortzeko beharra dagoela ikusten da.

Eta horixe da Euskaraldia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Topaguneak beste hainbat eta hainbat eragilerekin elkarlanean, erabilera eta praktika linguistiko berriak sortzeko abian jarri dugun ekimena. Ezagutzatik erabilerarako jauzia emateko garaia da, euskararen alde egotetik alde egiteko garaia.

Euskaraldia Euskal Herri osoan egingo den arren tokian tokiko euskaltzale eta erakundeak izango dira herri bakoitzeko dinamiken sustatzaileak. Usurbilen ere, osatu da ekimen hori garatzeko batzordea.

Ekimen horretan 11 egunetan hizkuntza-praktika berri bat gauzatzera gonbidatuko ditugu herritarrak. Ariketa horren subjektuak 16 urtetik gorako helduak izango gara eta 11 egunez helduen hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa kolektibo bat egitea da proposamena, ulermena balioan jarrita. Bi subjektu mota bereizi dira: *ahobiziak* eta *belarriprestak*.



Usurbilgo Udala

*Ahobiziak* izango dira 11 egun horietan euskarari eutsiko diotenak solaskideak euskaraz ulertzen duen guztietan, eta, *belarriprestek*, berriz, solaskideak gonbidatuko dituzte berarekin euskaraz aritzera, nahiz eta *Belarriprestak* euskaraz edo gaztelaniaz erantzun.

Ekimenaren helburua da, besteak beste, ariketa praktiko horren bidez ikusaraztea eta bizi araztea hizkuntza-ohiturak alda ditzakegula, eta, ahal dela, 11 egun horiek pasa ostean, hizkuntza-praktika berri horiei eustea.

Hori guztia norberaren erabakiak errespetatuz, adeitasunez eta guztiak eroso sentitzeko moduan.

### **Euskaraldia Gipuzkoako Foru Aldundian eta Udaletxeetan**

Usurbilen eta Gipuzkoan erabileran eragiteko baldintza soziolinguistiko egokiak ditugu. Eta horrek ardura eta erantzukizun berezia ematen digu Euskaraldian.

Usurbilen bizi den 2 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 72,51 euskalduna da eta beste % 11,13ak euskara ulertzen du. Gipuzkoan biztanleriaren % 57,4 euskalduna da eta beste % 15,9k euskara ulertzen du.

Administrazioari dagokionez, Usurbilgo ordezkari politikoen %100 gai da euskaraz hitz egiteko eta udal langile publiko guztiak ere bai.

Gipuzkoako ordezkari politikoen % 86,8 gai da euskaraz hitz egiteko eta beste % 3,6 ulertzeko, eta langile publikoen % 86,8k hitz egiten du euskaraz.

Baina erabilera-datuek diote Usurbilen kale erabilera %54ekoa dela eta Gipuzkoan 16 urtetik gorakoek % 39,5ek hitz egiten duela euskaraz. Badugu non hobetu, eta horretan lagunduko digu Euskaraldiak.

Aipatutako datuak eta Usurbilgo eta Usurbilgo egoera soziolinguistikoa aintzat hartuta, Euskaraldia, aukera egokia dugu erakunde publikoek, eta, beraz, arduradun politikoei dagokigun erantzukizuna geure gain hartzeko eta eredugarritasunez jokatzeko, erabileran urrats berriak egite aldera.

Horregatik guztiagatik, honako hau aurkezten dugu:

### **ERAKUNDE ADIERAZPENA**

**Usurbilgo Udalak honakoa adierazi nahi du:**

- Usurbilgo Udalbatzak **bat egiten du Euskaraldiarekin** eta ekimenaren sustatzaile izango da. Horrenbestez, **erantzukizunez** eta **eredugarritasunez** jokatzeko konpromisoa hartzen du.
- Ordezkari politikoen **egiteko nagusia** izango da Euskaraldiaren markoan eta **bereziki udal barrura begira ekimena zabaltzea**. Horrenbestez, ekimen



Usurbilgo Udala

honetan ahalik eta *ahobizi* eta *belarriprest* gehien aktibatzeko urratsak emango ditugu, arduradun politikoak izan nahiz langileak izan.

- **Ahobiziok** euskara ulertzen duten guztiekin euskaraz aritzeko konpromisoa hartzen dugu.
- **Belarriprestok**, gainerakoak gonbidatuko ditugu gurekin euskaraz egin dezaten, nahiz eta guk euskaraz edo gaztelaniaz erantzun.
- Usurbilgo Udalak **neurriak hartuko** ditu **hizkuntza-praktika** horiek posible izan daitezkeen eta praktika **horiei etorkizunean eutsi ahal izateko**.
- Usurbilgo Udalak, **udal barruan ez ezik udalerrian ere**, ekimenaren sustatzaile gisa, herritarrak gonbidatuko ditu Euskaraldiko ekimenean parte har dezaten eta izena emateko bideak erraztuko ditu.
- Usurbilgo Udalak, bat egiten du **ekimena Gipuzkoan elkarrekin, elkarlanean eta batera garatzearekin**, lurralde mailako politika bateratu bati begira, ahalik eta udal gehienetan, mankomunitateetan, Gipuzkoako Foru Aldundian eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan.”

Bozketa honela izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## 5.- GALDERA-ESKAERAK.

Josune Urkolak esan du azkenengo Ingurumen batzordean aipatu zela Bio Donostiak jarrita zituen kabinetako emaitzak idatziz jasoko direla, eskatu ote diren galdetu du.

Jose Mari Iribarrek erantzun dio eskatuta daudela baina oraindik ez dituztela bidali.

Bestalde, Josune Urkolak aipatu du kalean kezka dagoela Ucinek isurtzen duen kearekin, herrian plataforma bat ere sortu dela, eta galdetu du ea badagoen airearen kalitateari buruzko datu objektiborik.

Jose Mari Iribarrek erantzun dio esan duen Ingurumen batzorde horretan bertan aipatu zutela kabina horiek oso aproposak ikusten zituztela. Momentu honetan ez dutela daturik dio. Eskumena Eusko Jaurlaritzarena dela zehaztu du eta beraiekin bilera bat



Usurbilgo Udala

izan zutela udaleko ingurumen teknikariak, alkateak eta berak. Jaurlaritzaren aldetik ganean egongo zirela eta jarraipena egingo zutela erantzun omen zitzaien.

Josune Urkolak adierazi dio aipatu duen hori batzordean aipatu zela, baina ea besterik ez ote dagoen galdetu du eta ezetz erantzun zaio.

Josune Urkolak, Eusko Jaurlaritzak jarri nahi dituen beste kabinengatik ere galdetu du.

Jose Mari Iribarrek erantzun dio udal teknikariaren txostena ikusi zutela eta gaur dela eguna erantzunik ez dutena, zain jarraitzen dutela gaineratu du.

Alkateak puntualizazio bat egin du, kabina horiek ez dituela Eusko Jaurlaritzak jarriko, argitu du Eko-hondakin enpresa behartuta dagoela kabina horiek jartzera GHK-k hala eskatu ziolako. Udal honek egin duen bakarra izan dela dio kabina horiek jartzeko ze baldintza bete beharko liratekeen esan.

**Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:30ean eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**